

Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA

1997ko ekaina 25zk

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

**CONCHITA, 18 URTE
COLOMBIARRREN ARTEAN**

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxes: 6583061.

"Gernika" Gernikara, eta Magdalena?

Azken egunetako polemika, Picassoren koadroaren nondik norakoa. Milioietaz hitz egiten dute: kamioi berezia, kaxa berezia, tolestuta, tolestu gabe... Bateko jakitunak eta atzerriko ilustratuak, denak koadroaren gaitzez hitz egiten.

Baina ohartu al zarete edo jakinean al zaudete herrian egon den kalteaz? Herrian bisitari izan nintzen lehengo baten eta a ze susto! Maala kaleko eskola eta ermita desagertuta? Nola liteke lau mendetako historia bat batean desagertzea? Nola utzi dezake herriko administrazioak horrelako gauzak gertatzen? Non dago Magdalenian irudia? Eliza barruan ez behintzat. Uriarteko Ama ikusi dut eta eliza berriztuta, dotore. Baina Magdalenian aztarrenik ez. Ez dakienak jakin beza XVII. mendeko irudi batez ari garela eta artelan guztiak bezala toki egoki bat behar dutela.

Herrian bizpahiru tokitan galdetu ondoren ermita berria egingo dütela esan zidaten, udaletxe, Elgetako parrokia eta gotzaigoaren arteko tratu baten ondorioz. Aurpegia behar da.

Uriarteko Andre Mariaren kapera tokiz aldatzen saiatu ziren aurreko mendean eta ahalegintzen saiatu ziren guztietan ez zuten lortu. Etxetxon kontaktzen da, eraman ahala gauzak bere tokira bueltatzen zirela eta begirale bat jarri zutela gertatzen zena ikusteko. Uriarteko Andre Mariak orduan itsu utzi zuen zaindaria honoko hau esanez:

*"Aida txuri ta beilegi;
begira daguan horri
begixa atara begi".*

Elgetan ez da behar izan

inor itsu uzteko mirarik. Asko daude. Gertatutakoak ez du barkamenik eta bueltarik. Orain gauza bat gelditzen da egiteko: "Magdalena, Maalara", eta beste bat esateko, eskola berria diseinatu duena arkitektoa al da?

Uztailak 22 Magdalena Eguna

San Juanak eta instituzioak

Euskal Herri osoan bezalaxe S.Juan bezperako jaia ospatu dugu aurten ere Elgetan.

Aurrez eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilaritzak jai berezi hau bultzatu nahian, deia egin zuen S. Juan jaiari zegokion su festa, abestia eta dantza, gure herri eta auzoetan berrezkura zitezten. Elgetako kultura arduradunak ere, parte hartu zuen ekintza bultzatzailer honetan eta ondorioz, 23an antolatu zen jaia eraman zen aurrera.

Jaia plazara eraman nahian, kontenedore handi bezain modernoa ipini zen plazan. (esan zidatenean, ondo iruditu bazitzaidan ere, esan behar, ez nuela ondo pentsatu zer nolako inpresioa egingo zidan, hura han ikusteak), onartu beharra dago intentzioa ona izan zela. JAIA PLAZARA ekartearena hain zuzen ere. Herriko trikitaliak beraien irakaslearekin, ideia ona, kultura arduraduna abestien letrak banatzen ere ondo, ideia ona (gero abestu ez bagenuen ere, denon akatsa) Baina onartezina iruditzen zaidana, udal horretako, sua piztearen arduradunaren jokaera izan zen, lotsagarria izan zela esatera ausartzen naiz. Lehenengo, ume guztiak ilara zuzenean eta zintzo zintzo, sua banan banan piztu zezaten, hau zuzen joan zedin han zego-

en instituzioaren errepresentantea ordenia ipintzen. Sua pizteko orduan (puntu puntuan noski) eta asuntua bere bidetik joango zenaren segurtasunarekin, arratsalde guztian plaza garbitzen erabili zuen erratzari su eman zion. Momentu baten, beldur izan ginen ez ote zion kontenedoreari ere berak su eman-go, baina ez, ez zen hala izan, eskerak!!

Umeek kontenedoreari su eman ARDURADUNAK esan zutenean, ilaran ipinita berak esanda bezala, egur gehiago bota, berak esandakoan etab. Eskerrak ume ausarta xamar batzuk, eta nazkanazka egin ondoren, neurri gabe han hasi zirela egurrak sutara botatzen. Han agertu zen gure umeen errebelia, eta jokaera hori nik, TXALOTU egin nuen, txaloak jo ez banituen ere.

S.JUAN jaietako protagonistak beti, umeak izan dira nagusien dako prestatzen duten jaietan. Laga ditzagun gauzak zeudenean eta jarrai dezagun jai herrikoiei bat egiten, instituzioen eta nagusien protagonismoa alde batetara utziz.

Guzti hau aipatu ondoren, datorren urterako, zera erreibindikatu nahi dut: Ezoladun zikin pila bat matadero ondoan, gure umeek herri guztiarentzat egingo, muturrean, urte askotan umetoxoren baten ondoan lo goxoa egin duen panpin zikinen bat ipinita eta bultza ditzagun gure umeak guzti hori egitera. Eta bazterrak zikin uzten badituzte, joan dadila UDALETXEKO GARBITZAILEA garbi tzera urrengo egunean, hori baita bere lana. Bbukatzeko esan, nik aurtengo suari, arrokeria eta arrokeriaz betetako protagonismoa bota dizkiodala, Elgetako suari.

M. Larrañaga

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



(in)komunikazioaren garaian

Egunotan (in)komunikaturik bizi garen sentsazioa daukagu, baina elkar ulertze kontutan, lehengo bideak bazter utzi eta berriak urratzeko ideiarri ez diete erreparatu.

Lantoki eta bulego askotan jarri digute ditoxosozko Internet-sarea. Baina aldameneko mahaiuanb daukagun lankideari lanari buruzko ohartxo bat egiteko ez da egokia. Lastima, zeren bere muturra ez ikustearren, kabletan barrena bidaliko genioke esan beharrekoa, eta hor, ederki konponduta arazoa!

Egunkaria, irratia, telebista... buruz dakizkigu albisteak. Albiste batzuk, noski. Komeni direnak, Komeni ez direnak ezkutatu egiten dira. Oso inportantea izaten da, halako jauntxoaren alabak ezkondu egin behar duela jakitea. Zertarako, barren? Ezkontzara gonbidatu behar ez bagaituzte! Ez dituzte berdin bonbardatzen, Sarasketaren amak pasa dituenak eta pasatzen diharduenak. Kategoria handi askoko señora da ba: Merez du jauntxoaren andrearen besteko tratua! Baina zertarako? Semea etxean ikustea beste ilusiorik ez du, Jesus! Hori zer da ba? Ez behintzat guztiok jakiteko albisteak!

Telefono, fax, hegazkin supertsoniko, ibilgailu azkarrenak... Zeinekin (in)komunikatzeko?

Telefonoak kalanbrea ematen digu estuarenean dauden lagunei deitzeko; Mexikoko erbeste-teratuak ezin Euskadiko alabari faxik bidali, satellite sofistikatuenean ez gaituzte konektatzen bi pausura edo etxean bertan dauzkagun senideekin... Urrutiegia dauden mundu bakanetan bizi garelako... Eta joanak joan... hitzeko (in)komunikazioa) bide zaharrak, ahitua dirudi. Aurrerapenak, teknika-aren bidetik omen datoz... Baina egia esango dizuet, ez dut sare telematikoa bidezko jaietako pregoirik nahi! Begiratu batekin edo hitza goxo batekin esatea nahiago dut:

Ondo pasa jaietan, guztiok, Gaudenok eta inkomunikatuta dauzkagunak.

Beatriz Zabalondo



Lege atzerakoiak gizarte aurrerakoiarentzat

Ondorengo lerro hauetan, nire ustez eta ezkontzari zor diodan errespeto osoarekin, gaur egun egiten diran ezkontza askoren arrazoia zein dan kontatuko dizuet, hortarako aurreko egun baten kontsultara etorri zitzaidan bikote baten egoeran eta ondoren izan zuten jarreraren oinarrituko naizelarik.

Bikote honek, beraiek jakingo dute zien arrazoingatik, ez zeukan, hasieran behintzat, ezkontzeko inolako asmorik.

Aspaldian elkarrekin bizi direla eta ondasunen banaketa eta antolaketa bat egin nahi zuten, bihar edo etzi zerbait gertatuko balitz, batak bestearen ondasunen jabetza izan nahi zuten. Hori egin ahal izateko zeukaten aukera egokiena elkarri ondasunen donazioa egitea zen, nire ustez. Donazio kontratu bat egiten denean, Ogasunak (Haziendak) "donazio zerga" eskatzen du eta horra hor, nondik, bikote honek ezkontzeko erabakia hartzeko arrazoia.

Orain dela hilabete bat onartu berria den legeak zenbait pertsonen arteko donazioak, donazio zerga ordaintzetik aske uzten ditu, guraso, seme-alaba,... eta senar-emazteen artekoak hain zuzen.



Gure kasuan berriz, bikote honen harremana ezkondu ez egoteagatik batere loturarik gabekoa dela uste du legeak eta, ondorioz, donazio zerga ordaintzera behartuta zeuden, dirutza kopuru ederra gainera.

Donazio legearen moduko ehundaka adibide aipa genitzake elkarrekin bizi diran eta ezkontzeko asmorik ez duten pertsonak ezkontzeko erabakia hartzeko: alarguntasun pentsioa, testamenduak edo oinordekiak arautzen dituen kode zibila,... eta abar, eta abar...

Ez al da nahiko lotsagarri eta tamalgarria arrazoi ekonomikoengatik bikoteak ezkontzea?

Har ditzagun neurriak ezkonduak eta ezkongabeak legearen aurrean berdintasun egoeran aurki daitezten.

Ainhoa Larrañaga



GOIBEXOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroskopia:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Beatriz Zabalondo, Ainhoa Larrañaga eta Alberto Telleria. **Administrazioa:** Esti Retolaza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxani (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibexokalek ez du bere gain hartzen. aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Udaletxeak 100.000 pta Salvador ermita konpontzeko

Salvador kaleko bizilagunen eskaria jaso eta gero hasieran San Blas basilizarako ziren diruak Salvadorren geratu dira. Salvadorreko bizilagunak 350.000 ptako aurrekontua aurkeztu bazuten ere azkenean auzolana dela eta 185.000 pta kostatu da basiliza konpontzea. Aurtengo jairako ermita dotore-dore eta jaietako egitaraua ere kalean.

Erradiografiak

Erabilgarriak ez diren erradiografiak jasotzeko bigarren kanpaina.

"Mugarik Gabeko Farmazialariak" taldeak antolatu du kanpaina. Uztail bukaerararte iraungo du. Farmazian bertan utzi daitezke erabilgarriak ez diren erradiografiak. Erradiografiak zilarrezko gatzak dituzte, erreziklatu ondoren zilarrezko lingotetan bihurtu daitezke. Lortutako dirua antolatzaileek egiten dituzten giza laguntzak bultzatzeko izango da.

Gaztetxea herriari zabalik

Gazte Asanbladak berrizte lanak egin ditu Gaztetxean. Barra berria egin dute eta argien banaketa berria ere bai. Berrikuntza hauek egin ostean ekintzekin jarraitzeaz gain, bariku eta zapatu arratsalde eta gauetan gaztetxea zabalik egongo da tabernari eta guzti. Enteratu gara pintxo goxoak ere egongo direla. Badago poteorako beste leku bat.



Kontenedorearen ondoan egin zuten dantzan umeak.

SAN JUAN SU MODERNOAK

Udaletxeak jaia herriko plazan egin zuen eta nahiko partaidetza handia lortu zuen gainera. Haurrak bertan egunean batu zituzten sutarako behar zirenak eta esan behar oso ondo pasatu zutela egur batzen. Kontenedorea plaza erdian ipini zuten iazko arazoak

gerta ez zitezen (biharamunean dena zikina omen), ezin salto egin gainera, udaletxeko langileak haurrak zaintzen... ezin esan betiko San Juan gaua izan zenik. Hurrengo egunean modernismoak bere alde txarra erakutsi zuen, plazako zolua begiratu besterik ez dago.



Gehiegi berotu zen zolua nonbait eta plazako arlosak altxatu ziren.

Antonio Rodrigues Da Cruz

IAPAM

Galdaragintza arina

Soldadura homologatuak

Hoditeria

Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxe: 78 90 14

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

EKINTZA EZBERDINAK ADIN GUZTIETAKO JENDEARENTZAT

Aurrek sekula baino ekitaldi gehiago edukiko dituzte: arrantza lehiaketa, ume parkea, jolasak, buru-handiak, pailasoak, play-backa, txirrindulari lasterketa,...

Ferixa Nagusikua iritsi da urte osoa zain egon eta gero. Jai Batzordean pertsona ugari hartu dute parte, aurreko urteetan baino askoz gehiagok. Beraien lanaz egindako egitarauarekin orain denok izango dugu jolasteko, dantzatzeko, mugitzeko,... ondo pasatzeko aukera. Gauerdian plazan emango zaie hasiera jaietara, pregoia, txupinazioa, zezen suzkoa,... nork botako ote du aurten pregoia?

Egunean zehar ekintza ugari daude umeentzat. Eguen arratsalde osoa beraintzat ekintzaz beteta egongo da, ume parkea, jolasak, buru-handiak, arratsalde osoa pozik iragateko aukera. Ostiralean Takolo, Pirritx eta Porrotx pailasoak etorriko dira herrikoiei irribarrea eragitera. Larunbatean Play-Backa eta Txirrindulari lasterketa izango dute

euren trebeziak bertan erakusteko. Honetaz gain gauero etorriko diren plaza taldeek (Zabale Anaiak, Egan, Drindots eta Jainaga eta Narbaiza) ume eta nagusi askoren gorputzei astindutxo bat emateko asmoa ekarriko dute. Plaza taldeez gain Gaztetxean ere egongo da, musika ezberdinak entzuteko aukera, horretarako egitarau zabala prestatu da, lau egunetan hamar talde etorriko direlarik. Kirola maitatzen dutenek ere badute lekutxo programan, Intxortara X Igoera eta 4'terdiko finalak jaietan, aurten Euskadiko XII. Mendiko Txirrindulari Lasterketa jaien ondorengo astean izango baita.

Datorren alean egitarau guztiari emango diogu urteroko errepasotxo.



Urtero bezala jubilatuek ere beraien eguna izango dute jaietan.

AEK-KO UDAKO BARNETEGIAK MARTXAN

-Elgetan uztailetik, urrira bitartean 120 ikasle espero dira-

Aurten Elgeta izango da AEK-ko barnetegietako ikasleak jasoko dituen herria. Euskal Herri osoko jendea ekarriko dute euskera ikastera. Iparraldetik eta Nafarroako lurraldeetako lagunak etortzeaz gain, Madril,artzelona eta Parisetik ere agertuko omen dira.

Taldeak 30 lagunez osatuta egongo dira. Lo eskola zaharretan egingo dute eta otorduak Panaderokuan, eskoletan berriz klaseak hartuko dituzte, egunean 6 orduz. Dena den aisialdirako tarteak ere izango dute.

Uztailean etorriko dira lehenengo taldekoak (uztailaren 7tik 20ra bitartean). Talde hau 3. eta 4. urratsetakoak osatzen dute. Bigarren taldea uztailaren 21etik abuztuaren 3rarte izango da. Hirugarren eta laugarren taldeak irailean etorriko dira.

Arratsaldetan edo egunean zehar herriko kaleetan herritarrekin batera jardungo dute. Horregatik guregana hurbilduko dira bat baino gehiagotan informazio eske edo dendetan erosketak egiten eta tabernetan kafea hartzen. Lehenengo txandakoak euskera maila baxua dute eta hauentzako eta beste taldekoentzat ere arreta piska bat eskatzen da euskeraz bizitzeko aukera izan dezaten.

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

Kurtso bukaera

Kurtso bukaera ospatzeko Angiozarko eskolako ikasleek Antzerkia eskaini zuten Saloian pasa den hilaren 19an. Inoiz baino jende gehiago bildu zen eskainitako antzerkitxo, kantu, bertso, karaoke, eta abarrekin disfrutzeko.

Datorren urtean ikastera Bergarara joango diren Garikoitz Garai eta Saioa Sarraori agurra egin zieten eta datorren ikasturtean hasiko den Mikel Gallastegiri ongi etorria.

Dantza ikastaroa

Ikasturtean zehar egon den dantza ikastaroak ere oporrak hartu ditu, pasa den larunbatean, ekainak 28an, egin zutelarik bukaerako afaria Pagomendi soziedadean.

Guztira 24 izan dira ikastaroan parte hartu dutenak bi taldetan banaturik, eguenetan batzuk eta zapatu goizetan besteak. Irakaslea Amaia Agirre bergararra izan dute eta datorren ikasturtean ere jarraitzeko asmotan dira. Orain udaran izaten diren hainbat jaientan praktikan ipiniko dute ikasitakoa.

Turismo bulegoan lanean

Nuria Gomez Inza angiozartarra hasi da Bergarako Turismo Bulegoan lanean udaldi honetarako. Nuriak Santanderren egin zituen Turismo ikasketak eta Estatu Batuetan eta Frantzia izana da hizkuntzak ikasten. Euskereaz gain gaztelera, frantsiera eta ingelesera berba egiten ditu.

Oporraldietan irekitzen den bulego hau gero eta gehiago gure inguruetara etortzen diren turistei argibideak emateko pentsatua dago, hemengo baliabide artistiko, kultural, paisajistiko zein gastronomikoez disfruta dezan. Deba Garaiko Mankomunitateak ere eskualde guztirako Bulego bat ezartzeko asmoak azaldu ditu, Bergara izan daitekalarik kokapen posible bat.



Adunako Frontoian 25 herrietako ikasleak bildurik.

ESKOLA TXIKIEN EGUNA ADUNAN

Pasa den ekainaren 15ean ospatu zen "Eskola Txikien Eguna" Adunan eta bertara Angiozartar dexente inguratu zen. Eskola Txikietako ikasleek euren antzeppen eta kantaldiak egin zituzten besteentzat eta dantza eta musiken artean pasa zuten eguna, aukera ederra edukiz beste 25 herrietako eskolakideak ezagutzeko, kezkak konpartitzeko...

Egun hauen helburuak bi dira nagusiki: alde batetik Eskola Txikiak dituzten herriek bizirik irauteko duten gogoaz azaldu eta bestalde duten balio pedagogiko zein kulturala jakinarazi gizarteari. Izan ere eskola edukitzen jarraitzen duten herri zein auzoek berezkoa duten nortasuna mantentzen jarraitzen dute, tokian tokiko bizitza ere aberatsagoa delarik.

San Kristobal jaiak

Errekaldiak bere zaindaria duen San Kristobal ospatuko du uztailaren 9tik 13ra bitartean ondoko egitarauarekin:

9an, eguaztena, -Jai-Pinua jasotzea eta txokolatada.

10ean, eguena, - Meza Nagusia eta kotxe bedeinkazioa eguerdian

- Gauean dantzaldia Imanol eta Zabaletarekin.

12an, zapatua,
- Arratsaldez Tiro Platoa.

- Gauean dantzaldia LUHARTZ taldearekin.

13an, domekia, - Meza Nagusia eta kotxe bedeinkazioa eguerdian.

Ondoren luntxa jubila-tuentzat eta umeentzako jolasak.

Animazioa aseguratuta dago Iruñara joaterik ez dutenentzat eta gainera domekan, hilak 13, Abiadura Haundiko Trenari buruzko erakusketa egongo da ikusgai eguerdiz.

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

LENIZ

AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604
ARRASATE

LEHIAKETA



Ahalik eta leku zehatzena eskatzen genizuen eta karta batzuek horrelaxe heldu zaizkigu, zehatz-mehatz. Begira zelako erantzuna bidali digun Aintzane Zabalak:

Beizu-Azula bidea eta Azkonabitxa-Ubera pista (mountain-bike lasterketa pasatu zen pista) zeharkatzen diren tokitik ateratako argazkia.

Ez dago dudarik. Aintzane bertaraino joana dela aldizkaria eskuan hartuta. Lan hori hartu eta kartatxo bat idatzi duelako birentzako afari eder bat irabaziko du. Zorionak beraz Aintzane Zabalari eta on egin!



Oraingoan beste pertsona baten izena eskatzen dizuegu eta pistarik ere ez da falta. Esan genezake aldizkarian agertu dela dagoneko. Erraza ezta? Zein da? Izen abizenak idatzi eta badakizue nora bidali. Ez dakizuela? Ba, **Goibekokale** Elgetako Aldizkaria Salbador kalea 2 Kultur Etxea Elgeta (Gipuzkoa).

Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA



Jaixetako gauza onena? ta txarrena?

Badatoz, badatoz aurten be herriko jaixak. Gaur hasten dira jaixak, hori dala ta, pentsau dogu hau galderiau egittia. Jentiantzako jaixak ondo ala txarto daren galdetu dogu. Bueno ba besteik barik jaixak ondo pasau ta gutxi gastau.



Maistria (36 urte)

Umientzat egoten diran gauzak oso ondo dare, paia suak ta jokuak, iaz be oso ondo egon ziran. Pentsatzen dot gaztientzako beste jentiantzako be gauzak egongo dirala, programia izan leike jaixetako gauzaik onena. Jaixetan ez da egoten gauza txarrik, zaratia ta normala da jaixetan.



Bihargiña (36 urte)

Jaixetan egoten dan gauza onena musikia da eta jaixetako gauza txarrena zein izan leiken ez jakixat/ettakixat. Ez juat uste nik gauza txarrik dagonik, jaixak ondo pasau bihar dia. Lo egin bihar dabenentzat zaratia izango da gauza txarrena, baiña jaixak izanda normala da.




Etxekoandria (60 urte)

Jaixetako gauza onena baiño denpora ona egittia dakala behintzat, hori guk ezin dogu egiñ. Ez jata pentsatzen gauza txarrik dagonik, jaixa dana da politta. Zaratak ta ez nabe molestutzen ni ondo egon ezkeru. Programia be nahiko ondo dago.




Etxekoandria (62 urte)

Neretzat gauzaik onena danak beren lekuan ondo ipiñita darella, programan danendako moduko gauzak agertzen dira, bai gaztientzako ta umientzako, baita gure modukuentzako be. Ta gauza txarrik ez dago, zaratia ta egotia normala da jaixetan.




Bihargiña (58 urte)

Jaixetatik gehixen gustatzen jatana jaixa bera da, juergia, ambientia. Gutxien gustatzen jatana zaratia etaratzen daben musika taldiak dira.



Ikaslia (17 urte)

Neretzako jaixetako gauza onena gaupasia izan leike anbientiakin batera. Txarrena kanpoko neska gutxi etortzen dirala. Kanpoko jente gehixau etorri ezkeru askoz hobeto egongo zan. Programia ondo dago, baiña gauzak falta dira, zezen mekanikua ta ekartzia ondo egongo litzake.



Jesús Marí Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

EROSLE

M. Asun Agirre


Salbador 26. Tel: 768190

Jose Luis Markiegi Bihargiña (34 urte)

- ♈ Aries:** Herriko despistauenak be bajakik heure plana.
- ♉ Taurus:** Ez gorde sekreturik... Gerotxuau heuk kontauko ditzuk/dittun da.
- ♊ Geminis:** Biaje bat tokauko jatak/jatan baiña ez dok/don jakingo zeinekin jua.
- ♋ Cancer:** Kriston sustua eukikodok/don baiña ondo urtengo dok/don.
- ♌ Leo:** Hire bihotza berriz pistuko dok/don, lagun berri bat ezagutzen duanian/dunanian.
- ♍ Virgo:** Lan danak denboraz bukatuko ditzuk/dittun. Merezittako oporak hartuko ditzuk/dittun.
- ♎ Libra:** Konberzaziño guztietan aparta tauta geratuko haiz, lasai, aurrera urtengo dok/don.
- ♏ Escorpio:** Buruan gordeta dittuan/dittunan gauza guztiak heure kalterako izango ditzuk/dittun.
- ♐ Sagitarius:** Kapritxo bat egitteko momentua heldu jatzu, aurrera ba.
- ♑ Capricornius:** Medikua bixitau ta gero, gehixau zainduko dok/don hire gorputza.
- ♒ Acuarius:** Larregi harriesgauko dok/don jokuan, baiña azkenian parra geratuko haiz.
- ♓ Piscis:** Izar batek bixitauko hau, hire harridurarako.

- Jaixetako egunik onena? Eguen gaba.
- Programako gauzaik gustokuena? Zezenak. - Ta gutxien gustatzen jatzuna? Astelehen goixa.
- Ze gehittuko zontzake jaixei? Zezen gehixau.
- Jentiak parte hartzen dau jaiak antolatzerakuan? Gutxi.
- Aurtengo programan umientzako gauza asko dago, ta gaztiendako? Gaztiak zeintzuk dira, guretako ez dago, baiña jubilauentzako bai, guretako geuk egin bihar.
- Kalimotxua ala zerbezia? Zerbezia.
- Makailua ala trikitixa? Trikitixa.
- Zetako da kantu erromantikua? Geroko egunetan pentsatzeko.
- Txosnia ala tabernia? Tabernia nahixau.

- Erosten dozu zeoze ferixan? Segakertenak.
- Azoka Nagusia ala Ferixa Nausikua? Ferixa Nausikua.
- Lan egittiaz gain ze egitten dozu? Juergia ta basarrixan lan.
- Astua ala zaldixa? Astua.
- Zezenen aurrian jartzeko ze bihar da? Ama aurrian ez egotia. - Ta torerua izateko? Zezenak.
- Ze ekartzen dotzue burura honek berbok: Torero, gaupasa, ekologista? Baliente, ajia, jente ona da, "¡que cojones!"
- Ligatzeko formula? Ez dakitt.
- Kirolik gustokuena? Herri kirolak.
- Zeiñek irabazi bihar dau 4't erdiko txapelketia? Berraondok, baiña...
- Ze eruango ziñuke arrastradoriakin aurrian? Atzian badakitt, piñuak; baiña aurrian ez dakitt, kalian ezin da ibili ta.
- Ze esango zontzake beran seme-alabei gaupasa egitten lagatzen ez dotsenei? Hori seme-alabak dakanai ezta? Ba, ez dagola ondo.
- Jaixak zetarako dia? Ondo pasatzeko.



HAIZEA

TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256

E HARATEGIA A S T

San Roke 6
tel: 768168.

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

CONCHITA ARANTZETA ZABALA: “HELBURU NAGUSIENETAKOA HEZKUNTZARAKO AUKERA EMATEA DA”

-Colombiako mendien sakontasuna nabaritzen zaio begi berdeetan eta bere ezpainetan colombiarren irriparra darama elgetar honek-

Conchita Arantzeta Larra-biltxoko alaba da. 50 urteko emakume hau Colombian dago azken 18 urtetan eta 25 urte daramatza Pasiotarrekin. Medellingo hirian bizi da, 3 milioi biztanleko gunea. Beste 8 monjekin osatzen du bere taldea eta irakasle lanetan aritzen dira besteak beste. Hainbeste urte Colombian egon ondoren, hona etortzean gehien estimatzen duena kantua da, bertakoak ez omen dira oso trebeak horretan.

Conchitaren esanetan urte guztian da udaberria Medellinen. Colombia kontraste handiko lurraldea da bero ikaragarria dago toki batzuetan eta udaberria da urte guztian beste lurralde batzutan. Herri oso aberatsa da Conchitak esaten duenez, “errekurtso asko dituen lurraldea da, mehategiak eta kafea barne ekonomiaren oinarria dira”. Enpresa gehienak amerikarrak dira eta ateratzen diren irabazieta-tik uskeria bat itzultzen da, kafea da orain ekonomiaren oinarria. Conchi-

tak esan zigunez, orain diamenteen mehategiak aurkitu dituzte plata-noak lantzen diren lurretan” Colombiako lurralde hau Caribeko uretan sartzen den beso bat da (Antioquia), dena militar, gerrileroz eta paramilitarrez beteta dago orain, eta guztien asmoa hantzi den baserritarra botatzea da lurrekin geratzeko asmoz. Gu lurralde horietara joaten hasi gara nekazariei ahal dugun laguntza eman asmoz”.



Pasiotarren elkartean aurkitu du bere bizimodua eta 25 urte daramatza beraiekin.

Conchita Arantzeta: “Hasierako elementu paternalista baztertua izan da. Orain beraiekin lan egiteko orduan konprometzu bat eskatzen zaie, gero proiektuak beraien esku uzteko”.

Maiteminduta dago bertako jendeaz. Kanpotarrentzako beti dituzte atek irekita, irripartsu eta beti dantzarako prest. “Kantopoko jendea beraiek baino

gehiago direla uste dute eta atzerri-tarrak ikusi orduko beti daude inguruan”. Postalen bidez ezagutzen dugun Colombia ederra da eta barrutik ezagutzen duenak Conchitak bezala eguneroko bizitza kontatu zigun. “Gu pobreen artean bizi gara, hori da gehiengoa eta denetik ikusteko aukera dago, prostituzio asko dago eta ondorioz umezurtz asko. HIES-a oso hedatua dago eta arazo sozial asko daude”.

18 urtean gauzak aldatu dira, dena den “gure helburua hezkuntza da, aspaldi ohartu ginen haxe zela oinarria. Eskolak ireki

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

ditugu, txikienez oinarrizko hezkuntza ematen dugu eta gero eskola profesionalen antzera funtzionatzen dugu. Orain zapatak egiten erakusten diegu eta litografia eta publizitateko mundua gogor sartzen hasi da". Conchitak aitortu digunez, hasiera baten oso "estilo paternalista" zuten, jendeak eskatzen zuenean eman. Hau asko aldatu da Conchitaren esanetan, beraiei ere konpromezu bat eskatzen zaie.

Bertako ikasleak oso onak omen dira, ikasten jarraitzea nahi dute unibertsitateetan. "Orain 18 urte ezagutu nituen gazte asko hilda daude. Droga trafikatzailerak armak sartu dituzte drogaren truke. Ez dugu pelikularik behar hildakoak eta odola ixurita ikusteko. Dena den jendea aspertuta dago

hainbeste odol ikusita, eta azken urteetan gaizak aldatuz doaz, batik batik bat jendea kontzientzia hartzen doalako eta hori agintean daudenei ez zaie gusatzen". Biztanleen ehuneko portzentai txikiena da aberatsa gaitzekoa egoera tamalgarrian bizi da, eta erdiko mailarik ez dago. Hala ere Colombia eta Hego Ameriketako pentsatzeko erak aldatzen doazela aurreratu zigun. "Kontsu-



Medellin hiria atzean, 3 milioi biztanleko gunea.

mismoaren sarrera indar handiz dator eta generazio berrietan asko nabari da".

"Gure lanaren beste alde bat umezurtzen artean dago. Bi etxe ditugu eta bakoitzean 20 ume daude. Kanean eta Estatuko umezurtegietan ume asko dago. Gure etxetik 60 ume edo atera dira Espainia eta Euskal Herrira, asko hartzen dituzte Valentzia aldean". Ume bat etxean jasotzeko tramite piloa, dirua, denbora eta pazientzia asko behar dira.

Gobernuz Kanpoko Erakunde batzuekin lan egiten dute, batik batik Irunen dagoen batekin. Urtero laupabost neska joaten dira hiru hilabetetarako eta proiektu desberdinak ipintzen dituzte martxan. Medellinen 100 kongregazio ezberdin daudela esan zigun, "bartzarrak egiten ditugu gure artean lan bateratu bat eramateko asmoz.



Zapatak, ogia, erropak...egiten erakusten diete gazteei beraien tailerretan.

Herralde aberatsa da Colombia, baina batik batik kanpokoentzat: ikatza, kafea, diamanteak... Herritarrek ordea egoera tamalgarriak jasaten dituzte, droga, giro politiko nahasiak... Aspertzen hasi dira eta gauzak aldatu nahi dituzte, baina hau ez da bertako agintarien gogoko.

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

M^A Karmen
Lenzeria

Lentzeria eta
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

KONTXI
ARRANDEGIA

Salbador 5 Tel: 768009


Egunpasa Iruñean

Kaixo *Goibekokaleko* irakurle guztioi:

Gu 2. DBH-ko ikasle batzuk gara eta berriz aurkezten gara betiko "txapada" emanez. Oraingotan Iruñeako egunpasari buruz hitz egingo dizuegu eta bertan bertso bat erantsiko diogu gure erreportaiari.

Ekainaren 17an Iruñeako Planetariora joan ginen. Bertara iritsi bezain laster Beloki eta Armendariz ikusi genituen beroketak egiten Planetario ondoan. Ez genien autograforik eskatu, Elkororenarekin nahikoa baitugu. Planetarioan sartu ginenean, argazkiz beteriko pasabidetik zehar joan ginen, aspertzeko asmoz aurrera eginaz. Bertan, areto borobil batean sartu eta erdian proiektore bat zegoen. Proiektorearen inguruan, eserleku berezi batzuk zeuden esertzerakoan etzan egiten zirelarik. Ondo eseri, ixildu eta gero, emakume bat planetak astroak, izarrak eta abarrez hitz egiten hasi zitzaigun. Emakume hark esan zuen ikusi behar genuena, dena jarraiean ikusi beharrean bi zatitan banatuko genituela. Bertan erakutsi zigun

nola aurkitu Ipar-izarra, ze marrazki osatzen diren izarrekin, nortzuk diren izarrak eta nortzuk planetak, nolakoak diren planetak. Galderak egin eta gero kanpoko parkera irten eta 12:30-etakoa egin genuen. Han denbora tarte bat igaro eta Iruñea erdian zegoen parke batera joan ginen. Parkea nahiko handia zenez erdian zoologiko txiki bat zegoen, bertan dordokak, ahuntz ipotxak,



Errefreskatzeko denbora ere izan genuen.

ahateak, indioilar errealak, oreinak, arrainak, zisneak... zeuden. Parke hartan bazkaldu egin genuen (ez genuen gose handirik, baina jan egin behar izan genuen). Han igaro genituen pare bat ordu, bertan jendeak bero handia zeukanez, bertan zegoen iturri batean sartu ziren, beste batzuk animaliei begira igaro zituzten bi orduak, beste batzuk musika entzuten zuten, beste batzuk ziburuetan eta beste gutxi batzuk maixuei "pelota" eginez ea eskaz hori nahiko bat bihurtzen zen itxaroten bihurtzen zen itxaroten!

Bi orduak pasatu ondoren, autobusera joan eta bertan pasa genuen ondoan. Hau izan zen gure ibilaldia.

Bertsoa

Goizian goiz jaikitxa
 juan ga Iruñara
 Planetariunarekin
 ondo pasatzera.
 Izarrak ikusi, ta
 piskat ligatzera
 berandu egin dela
 bagoaz etxera.

2. DBH

tel:768151

gustora
sentituko
zara.

F . O . R

Kalitate kontrola
 Piezei azken ukituak

salbador
19
behea

Tel: 76 80 38

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

**DEKOLETATA ETA
FIJAZIO SISTEMAK**

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
 P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

Kartetan
jokatzeke giro
egokia

W.C.

Kopa bat

Tel: 768093

P a t x i T a b e r n a

GAZTA TARTA

Sukaldaria: Alex Arantzabal
Intxorta Elkarte



NOLA PRESTATU OREA:

- Osagai guztiak ontzi batean nahastu, bola bat egin arte. Tarta egiteko moldearen gurina eta urunarekin gantzuztu.
- Egindako bola ore-alperrarekin (rodiloa) zabaldu eta moldera pasatu. Orea tenedorearekin zulatu, labean arrotu edo puztu ez dadin.
- Labean sartu, tenperatura erdi inguruan, eta gorritu artea utzi. Ateratakoan hozten utzi.

NOLA PRESTATU BETEGARRIA:

- Esne hotzetara gelatina bota eta sutan urtu. Urtutakoan, beste osagai guztiak bota eta batidorearekin nahastu.
- Nahasketa guztiz arrotu gabe dagoenean, orera bota. Ondoren, hozkailuan sartu gogortu arte.
- Azkenik, gogortutakoan mermelada gainean eman.

OSAGIAIAK:


(Oinarria egiteko orearentzat)

- 250gr. uruna
- 125gr. gurina
- Gorringo bat
- 2 koilarakada ura
- 2 koilarakada azukrea.
- Gatza

OSAGIAIAK:

(Betegarriarentzat)

- 350ml. esnegain likidoa
- 150ml. esne
- 200gr. untatzeko gazta
- 3 gelatina orri
- 125gr. azukarra



- Gomendioa:**
- Mermelada pasadoretik pasatu pepitak kentzeko.
 - Kazuela txiki batean mermelada berotu pastelaren gainean hobeto zabaltzeko.
 - Tarta hau bezperan egitea hobeto izaten da hobeto gogortzeko.



BERASALUZE VIIak ETA GALARTZA IVak JOKATUKO DUTE 4 T'ERDI BARRUKO FINALA

Gaztetxoetan Etxaniz eta Urberuaga izango dira aurrez-aurre

Eñaut Berasaluze eta Enrique Galartza izango dira aurrez-aurre uztailak 6an sub23 mailako 4 t'erdiko finalean. Lehenak Tirapu (Orkoien) hartu zuen menpean finalerdian 22-19 irabaziz. Partidua bikaina izan zen, askorentzako final aurreratua. Berriztarraren berezko gaitasunaren aurrean orkoiengoaren indarra eta ahalmen fisikoa izan genuen. Berasaluze 10 eta 3 aurreratu zen eta bazirudien ez zuela arazo handirik izango partidua irabazteko. Tirapuk ordea 4. tantua egin bezain laster pelota aldatu zuen eta markagailua pareparean ipini zuen (10-10). Hortik

aurrera, 18. tanturaino, oso parekatua izan zen partidua. Partiduko azken txanpan Berasaluzek alde txiki bat atera zion aurkakoari (21-17) eta erabakigarria izan zen partidua irabazteko.

Jaialdiari hasera eman zion partiduan Galarza IV.ak erraz menderatu zuen Berraondo. Antzuolako pelotariak nahiko txapelketa txarra egin du eta eta ez du joan zen urtean txapela irabaztera eraman zion jokoaren erakutsi. Galartzak (Ladisen anaia) txapelketa ona egin duen arren ez da Berraondon adinako pilotaria 4 t'erdiko barruan eta joku ikusgarrikerik erakutsi gabe,

seriotasuna arma duela finalera heltzea lortu du. Berasaluze faborito nagusia dela esan daiteke.

Gaztetxoetan, espero zen bezala, Urberuaga (Aulesti) eta Etxaniz (Azkoitia) izango dira finalean. Lehenak 18 eta 9 irabazi zion Zapiraini eta Etxanizek pelotakadaka atera zuen frontoitik Perez (18-9). Etxaniz da faborito nagusia.

Urtero bezala afizionatu eta kadete mailako pilotaririk onetsuenek jokatu dituzte finalak... Ah! eta seguru frontoia goraino beteta egongo dela orain arte moduan, benetan ikusgarria!

Arrakastatsua atzeko kuadroetan jokatuak txapelketa

Elgetako herritarrentzat atzeko kuadroetan antolatutako lehen pilota txapelketak arrakasta handia izan du. Hamasei bikotek parte hartu zuten -antolatzaileek uste baino gehiago- eta partidua

ikustera ere jende ugari joan zen.

Finala Anartz (Elgetan enpadronatua) eta Eñautek Mikel eta Peioren aurka jokatu zuten. Bi bikoteak txapelketa bikaina jokatu ondoren heldu ziren finalera. Finalak ez zuen emozio handirik izan, gazteek -batez ere Eñauti esker- erraz hartu baitzituzten mendean Mikel eta Peio. Azken emaitza 18 eta 5koa izan zen.

Hurrengo horrelako txapelketa bat antolatzeko orduan federatuak onartu edo ez eztabaidatu beharra dago.



Jendeak ez zuen hutsik egin pilota txapelketan.

"Estampaciones Elgeta" hirugarren Eibarreko txapelketan

Joan zen urtean bigarren postuan bukatu zuten elgetar saskibaloilariak aurten ezin izan dute postu hau hobetu ez eta berdindu ere. Horrek ez du esan nahi pasadan deboraldian baino gaizkiago jokatu dutenik. Aurten nahiz eta joko aldetik hobekuntza nabarmenik izan ez finalera sailkatzeko aukera handiak izan dituzte azken jardunaldietararte, nahiz eta azkenean horrelaorik lortu ez.

Seigaren aurka irabazi beharreko partiduan garaipena lortu izan balute, lerro hauetan bestelako zerbait idatziko genuke. Garaipen hark finalerako txartela ziurtatuko luke.

BILTEGI DENDA
Zugandik gertu behar duzun beste
Salbador 24 Tel: 768206



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

JOIXON BERTAN ETA BAR PASEO TXAPELDUN

Neskek luzapenean irabazi zuten eta durangotarrek ez zuten arazo handirik izan

San Juan bezperan jokatu-tako futbito finaletan euria izan zen protagonista nagusia. Txapelketa hau kanpoko kantxan jokatzeko denetik lehen aldia da finaletan euria egiten duena. Eguraldi txarrek zerikusi handia izan zuen bai taldeen jokoan -kantxa labana zegoen- eta baita ikusle kopuruan ere. Oso jende gutxi joan zen partidua ikustera.

Eguraldiak kale egin bazuen ere ezin daiteke berdina esan nesken finalaz. Ri Rau eta Joixon Bertanek jokatu-tako partidua, aurten nesken txapelketan jokatu den partidurik onena izan zen, hunkigarriena bai behintzat. Hasiera batean Joixon Bertanekoak ziren faboritoak txapelketa guztian zehar horrela erakutsi dutelako. Finala ordea oso parekatua izan zen. Partidua hasi bezain laster Joixon Bertanek aurrea hartu zuen markagailuan baina Ri Raukoek ez zeukaten partidua galtzeko asmorik eta atsedendaldira 2 eta 1eko abantailaz joan ziren. Bigarren zatia lehenengoaren antzera joan zen: indarrak oso parekatuak eta talde biak zuten guztia emanez. Partidua hiruna

amaitu zen. Ondorioz luzapena jokatu behar izan zuten. Hau ere oso parekatua izan zen. Luzapena berdinke-tarekin amaitu behar zela uste zenean eta ikusle gehienak penalty jaurtiketen zai zeudenean, korner jaurtiketa baten ondorioz Ariane-ko Joixon Bertanekoentzat laugarren gola sartu zuen, garaipenaren gola. Azkenean Joixon Bertanek 4 Ri Rau 3. Mari Marrek jaso zuen goleatzaile nagusiaren saria.

Bar Paseoren bigarren txapela


Mutiletan, Durangoko Bar Paseokoek 3 eta 1 irabazi zioten Angiozarkoei. Emaiza hau ezustekotzat jo daiteke sailkatze fasean



Bar Paseokoek badute beren jarraitzaile taldea Elgetan.

batzuk eta besteek erakutsitako joko maila ikusirik baina durangarrek merezimendu osoz lortu zuten txapela. Bar Paseok partidua hasi eta berehala lortu zuen markagailuan aurreratzea eta Angiozarkoek berdintzea lortu bazuten ere norae-zean ibili ziren partidua osoan zehar. Durangoarrek ederki aprobetxatu zuten egoera hau. Kantxa barruan lehia gogorra egon bazen ez zen gutxiagorako izan ikusleen artean egon zena.

itzulpenak
lanak ordenagailuz
interpretari lanak
transkripzioak



Tel: (94) 6583017
6821294

Iragarri
zaitez.

Tel: 78.90.85
Faxa: 789043




Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

VIVO
Janari
denda

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67

PARTEITTI

Ermita: San Bizente

Jaia: San Bizente jaia urtarrilaren 22an.

Hurbiltasunaren arabera aurreko edo hurrengo domekan ospatzen da. Goiza hartzen duen jaia da: Mezarekin hasi, luntzarekin jarraitu eta erromeriarekin bukatu bazkalordu aurretik.

Bitxikeria: Azken urtetan fama hartu du jai honek bertan egiten den urteko KATAIDE txakolinaren aurkezpenagatik doan probatzeko aukera eta nahi izanez gero enkargatzeko oere bai (oso ona).

Baserriak:

- Altzarrika (Altzerreka)
- Altzuain Gainekua (Altzuaran)
- AltzuainAzpikua(Altzuaran)
- Orbekotxo (Orbeko etxetxo)

- Zabarte (bi bizitza)
- Zabartekotxo (Zabarteko etxetxo)
- Gezalena (Hirubizitza)
- Orbe (Arbulu) (Hutsik)
- Orbegarai

- Orbe (hormak bakarrik)
- Koroba
- Arrei (Arregi)
- Arreikotxo (Arregiko etxetxo)
- Arreigain (Hutsik)

Hamazazpi etxek osatzen dute gaur egun Parteitti izenarekin ezagutzen dugun auzune hau. Gaur egun horrela deitzen badiogu ere beste deitura batzuk ere izan ditu: Partegoitia, Parteniti, eta abar. Oso lekuizen zaharra da "Parteitti" hau, XI. mendeko dokumenduetan agertzen baita monastegi edo garai hartako ermitañoen kokapen bezala. Egia esan, duela hogeitabost bat urte San Bizente ermitaren ondoan lurperatutako gorputzen aztarnak azaldu ziren, beharbada aspaldiko bakarti haienak, baina guzti hau lan sakonago bat itxoiten dago frogatu ahal izateko. Dena den ate buruan duen anagraman badirudi 1580. urtea ipintzen duela eta eliza garai horetarako bazela.

Bertako etxeetatik hiru "Cabo de Armeria" deiturikoak dira eta inianzoi den jatorrizko etxeak: orbe, Altzuaran eta Arregi. Dauden datuen arabera XIII. menderako bertan kokatuta eta etxea eraikita zuten familia hauek. Gaur egun ere arro erakusten dute bere nobleziaren ezaugarri den armarrria Orbe eta Altzuaran etxeek.

Parteittin hogeitamar lagun bizi dira, hau da, bertan dute helbidea, baina beste hamar ia egunero bertaratzen dira. Hamar lagunek 20 urte baino gutxiago dute eta zortzik 65 urte baino gehiago. Adin aldetik nahiko ondo orekatua dagoela esan daiteke, nahiz eta biz-

tanle kopuruan beherakada handia izan azken hogeitau urtean.

Garai baten pasabide izan zen arren (bertatik pasatzen zen eta pasatzen da mendigain ajarraituz Elgetatik Bergararako bide zaharra) gerora zeharo aparte gelditu zen

*Altzuaran eta
Altzarrika
etxazpiko soloetan
harri bola handiak
daude, aspaldiko
aro geologiko baten
gertaturiko
sumendien
esplosioen lekuko.*

mendi gainean dagoen lautada antzeko baten. Geologia aldetik leku interesgarria da bertan dauden leze zuloengatik eta, batez ere, Zabarte eta Zabartekotxo baserrien artean dagoen "dolina" deituriko fenomenoagatik (urak azaletik jarraitu beharrean lurpera egiten du leze zuloetatik), leku oso polita sortuz. Bestalde, Altzuaran eta Altzarrika etxazpiko soloetan harri bola handiak daude, aspaldiko aro geologi-

ko baten gertaturiko sumendien esplosioen lekuko. Bidean gora goazelarik mugan ere ikus daitezke txikiagoak.

Azken harri handi hauekin lotuta badago ipuin mitologiko polita: Aspaldiko garai baten Parteittin bizi zan jentila eta Lope Gainean (Goimendi auzoan) bizi zan beste bat harrika zebiltzan elkarri izugarrizko harriak jaurtiz. Jaurtiketa baten Altzuain inguru honetatik zebilen jentilak laban egin eta indar gutxikin bota eban harrixa Loperaino heldu biharrian Bolintxo ingurura jausiz. Orain dala urte gutxirarte egon zan harri hau Bolintxo eta Errotabarri bitartean presarako urak hartzeko ponporta inguruan. Bota barik gelditxu zianak ondio be hantxe dare Altzuaingo solobarrenian. "

Mendi gaineko zingira ere azken urtetan desagertu da Koroba eta Asentzio bitartean dagoen lautadotxoan. Ez zen Asentziokoa bezain sakona, betetze prozesuaren (kolmatazioaren) azkenetan baitzegoen, baina oraindik euriteetan eta leku urtsua zena. Pinudiak eragin handia eduki du azken betetze lanean baina orain dela hogeitau urte oraindik gartzak eta pasoko beste egazti batzu bertan gelditzen ziren.

Azken bitxikeri ekologikokoa San Bizente ermitaren inguruan dagoen artadia da. Angiozar

bailara osoan ez da gelditzen halako arte multzorik, dauden lekutan ere arbola sueltoak baitaude. Bena-tan zaintzekoa da mediterraniar klimako berezkoa den baso moeta hau.

Altzarrika (Altzerreka)

Parteittiko baserri guztien izenak (bat kenduta) toponimikoak dira, hau da, leku izenak dira, eta oso lagungarriak etxea jaso zen lehenengo al-dian ingurua nolakoa zen jakiteko. Altzarrika alta+erreka hitzen batuketa da, aspaldiko denbora haietan altzak ziran itxura denez nagusi inguru honetan, edo gutxienez Altzarrika eta Altzuain baserrien bitartean dagoen errekatxo inguruan.

Parteittiko baserri guztien izenak leku izenak dira, oso lagungarriak ingurua nolakoa zen jakiteko.

Baserri hau 1988ko urtarri-lean erre egin zen tximiniatik sabai-ra pasatako suaren eraginez, eta lau urte geroago, ilusio handiz, berriz ere jaso. Egitura aldetik berriz lehendik zuena errespetatu da: hegoaldera bizitzeko lekua eta iparaldera korta eta beste lekuak.

Altzarrika erre aurretik XVIII. mendeko haserria zen, baina era ximplean jasotakoa: ez zen harlandurik erabili ez ertzetan ezta arkuak egiteko. Parteittiko etxeetan tipikoa den harlosaz eraikita dago.

Altzuaran

Baserri hau gaur ezagutzen dugun itxurarekin 1816koa da eta bere jabea zen Pedro Francisco Garitano y Alzuaranek berreraiki

zuen data horretan. "Cabo de Armeria" eta "Casa Solar Infanzona" tituloak ditu eta armarrria du gainera.

Etxe honetakoa zen Martin de Alzuaran Navas de Tolosako borrokaldian egon zen 1212an, naparrek kateak armarrira ekarri zituzten borroka famatu hartan.

Geroago Juan de Alzuaran Baeza konkistatzen izan zen Bizkai-ko jaunarekin batera, San Andres egun batez lortu zelarik menperatzea Baezako herria. Oroigarri bizkaitarrek armarrrian San Andresen gurutzeta ipini zuten bezala inguratzen, Alzuarantarrak ere erregearen donazioz horrela egin zuten. Halaxe ikus

daitezke gaur egun ere armarrriaren inguruan etxeko ate buruan.

Etxe honetako beste jauntxo batzuk Fernando III el Santorekin batera Sibiliala (Sevilla) konkistatzen ere izan ziren.

1448an Juan eta Lope de Alzuaranek, ganboatarrak beste angiozartarrak bezala, Arrasate erretzen parte hartu zuten Onatiko kondearen aginduetara.

1603an Joan de Alzuaran Elgetako "Sindico Procurador" izan zen. Baina etxeari gaur egungo itxura eman ziona lehen aitatu

dugun Pedro Francisco de Garitano y Alzuaran izan zen. Gizon honek bere jatorria zuen etxea berreraiki eta San Bizente ermitan dagoen ezkeraldeko aldare neoklasikoa ere ordaindu zuen. Garai berean Angiozarko kalean jarri zen bizitzeko, bertako Beheko kalean eraiki zuen etxe berri eta handian, gaur eguneraino jarraitzen duen duelarik oinordekotza Garitano familian.

Zabarte

Hona hemen beste abizen nahiko ezagunaren jatorrizko etxea. Bere esanahia zabar+arte hitzen loturatik dator eta arbola txiki edo zabarren arteko etxea esan nahi du. Bi etxe bizitza ditu gaur egun etxe honek, gerra ostean zeharo eraberritua izan zelarik eta berezko itxura aldatua ekialderantz behintzat.

Gezurra badirudi ere lautadan dago eta lehen aipatu dugun leze eremuaren gainean. Etxe honetako tejobanan egiten da San Bizentetako erromeria.

Gaur egun Parteittin hogeitamar lagun bizi dira eta beste hamar ia egunero bertaratzen dira.

1632an Diego Martinez de Zabartek bere noblezia probatu zuen Arrasaten. Geroago, 1804an, berriz ere etxe honetako Zabartetarrak noblezia agiria lortu zuten Valladolideko auzitegian. Bere armarrian bi izar gorri ageri dira fondo horiaren gai-

nean.

Garai baten ezaguna zen Zabarteko sagardoa angiozartarren artean, baina orain egiteari utzita daude, kanporako behizat.

Jarraituko du.....

Geologia aldetik leku interesgarria da bertan dauden leze zuloengatik eta, batez ere, Zabarte eta Zabartekotxo baserrien artean dagoen "dolina" fenomenoagatik.

FERIXA NAUSIKO JAIXAK

Etorri diela aurten be! Eskerrak, zeozen premiñan bagenden. 20urte inguru izango die Ferixa Nagusiko jaixa hasi zala berriro ospatzen. Galduta be urte batzuk egiñ zittuan: Andramaixetan jentia kanpora joaten hasi, ambiente gutxi egon eta S. Pedro hurrengo domekara jaixak pasatzia erabagi zan. Hauxe izan zan honek jaixok berreskuratzeko arrazoirik haundi-xena.

Hau jaixau galdu baino lehen egun batekua izaten ei zan, domekiä beti. *La feria de los bueyes* moduan be ezagutzen zan, Arabatik etorritako iri asko egoten ei zan saltzeko edo trukadia egitteko. Hala ta be, entzun dogu igeteixak eta be asko saltzen zirala Zeletaneko arkupietan, garixak ebateko sasoiä etorritta erremintta ona biharko zan. Bizkaitarrak be arimatzen ei zian makatzak eta keixak saltzera. Ferixia egun osokua zan, hasi goixian eta gaberartekua.


Aurtego jaixak, betiko moduan, lau egunekuak izango dira. Jente askori motzak egingo jakuz akaso, erreza izaten da eta egun bikin bat eittia.

Ez zian ez makalak izan iazkuak, urte osuan akordatze-ko modukuak - *kodigo de barras* - a aldiän eukitta ez da ez gatxa. Ez dakitt bari-ku goixian, **a u r t e n**, konziertorik izan-**g o** dogun

Hotelian. Harrijasotzailliak be, nik dakidala behintzat, ez dot pentsatzen forma onian dagonik iazko markia tapatzeko.

Dana dala, aurtenguak be iazkuan beste-kuak izango dirala pentsatzen dot, estanpa edarra ez dogu eruango domeka atsaldian frontoira Galartza eta Berasaluzen ikustera. Ferixa lekura joan ezkeroren zein saldixa, zein bihorra dan jakitzeko dutxa fresko eder bat hartuta joan badaezpada.

Alberto
Telleria



GRUPO IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel: 76 80 98.

ALDI

IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatuä: 247262
tel: 789057-768025

*Elena Elkororen partez
Zorionak eta ondo pasau
jaixetan.*

**Zorionak elgetar guztioi.
Eskerrikasko antolatzen parte hartu
duzuen guztioi.**

Haurren eguna
Ume parkea
Buru-handiak
Zabale anaiak
Mozorro gaua
Kaskajoaren pregoia
Suzko zezena

**Jubilatu eta
kaskajuen eguna**

Ertzaintzaren eresbatza
Jubilatuentzat bazkaria
Briska eta tute txapelketa
Takolo, Pirritx eta Porrotx
Aldapa txaranga

Zezen txikiak eta pottokak
Bolo txapelketa jubilatuentzat
Egan
Entzierroa

Zapatua
Intxortara igoera
Incansables txaranga
Play-back
Drindots
Bolo txapelketa

Azoka nagusia
Ganadu lehiaketa
burdindegia eta
Pilota azoka
Jainaga eta Narbaiza
Sardinaren
Iurperatzea



**ELGETAKO
UDALETXEA**



Ibargarai, 11-13
BERGARA
Tel - Faxes: 767058



MODELO BERRIAK
Kalitate hobea preziorik onenean!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



LILURA

Edertze Institutua

**DEPILAZIO
PROGRESIBOA**

- Akabo ileak!!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Uda honetan eroso eta seguru sentitzeko.

Has zaitetz oraintxe!

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Telefonoa: 766 31 71